



LABORE JASANGARRIEN GAINEKO ESKU HARTZEAREN ALDAKETAREN JAKINARAZPENA - 2026 KANPAINA

Aldaketa horren arrazoia da ureztapen lurretan erremolatxaren laborantza une kritiko batean dagoela, ekoizpenaren beherakadaren ondorioz. Horri gehitzen badiogu araudiak egokitu egin direla, laborearen izurrite eta gaixotasunei aurre egiteko gai aktiboak gutxitu egin direla, eta nekazariak jaso beharreko prezio eskaintzak, labore hori bideraezina da ikuspuntu ekonomikotik. Esku hartze honetan onartu diren gainerako laboreek ezin dutenez erremolatxa laborearen azalera hori bere gain hartu, laguntza honen konpromisoari atxiki dakizkiokeen beste labore batzuk onartzea proposatzen da.

Dokumentu honen eranskinean, baldintzetan eta konpromisoetan proposatutako aldaketak aplikatzeko zenbait adibide azaltzen dira.

ALDAKETAK KONPROMISOETAN ETA BALDINTZETAN

Lehenengoa. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta onuradunen konpromiso baztertzailerak aldatzea:

A) **Labore multzo berri bat sartu da:**

- 1. multzoa: gizakiok jateko aledun lekaleak, lur ureztatueta udan lantzen direnak
- 2. multzoa. – Lur ureztatueta udan lantzen diren baratze estentsiboak.
- 3. multzoa. – Hazitarako patata eta gizakiok jateko patata lur ureztatuan.
- 4. multzoa.— Azukre erremolatxa lur ureztatuan
- **5. multzoa. – Ekilorea eta artoa lur ureztatuan** Bi labore horiek ez dute urteko primarik lotuta hektareako, ez baitira lagungarritzat jotzen. Konprometitutako urteetan eutsi beharreko azalera mantentzearen ondorioetarako hartzen dira bakarrik kontuan.

B) Gutxieneko azaleraren betekizunak laguntza jaso dezaketen labore talde guztiei eragiten die (5 multzoak: Ustiatégian aurreko paragrafoan aurreikusitako labore multzoaren labore estentsiboen gutxieneko azalera 2 hektareakoa izatea, eta hektarea bat baino gutxiagoko labore multzoek ezin izango dute laguntza jaso).

C) Laguntza jaso dezaketen labore multzo guztietarako (5 multzoak) ustiapen koaderno eguneratuta eduki behar da, fitosanitarioen, ongarrizteen eta ureztatzeen arloan jasotako aholkularitza teknikoaren arabera.

D) Lur ureztatueta ekilore eta artoaren 5. labore multzorako, ez da beharrezkoa izango zuzendaritza teknikoa izatea (teknikari baten zerbitzuak izatea).

E) Laguntza jaso dezaketen labore multzo guztiek (5 multzoak) bete behar dute uzta hondarrak lurperatzeko konpromisoa (Laguntza jaso duten laboreen hostoak eta uzta hondarrak lurrean sartzea, lurzati haietan larratzea edo haiek lurzatitik kentzea eragozteko).



Bigarren. Berriarazko konpromisoen eta nahitazko konpromisoen aldaketak

- A) Lur ureztatueta ekilore eta artoaren 5. labore multzoan ez da beharrezkoa izango lurzoruaen analisi fisiko-kimikoa egitea laborantza unitate bakoitzeko.
- B) Laguntza jaso dezaketen labore talde guztietarako (5 multzoak) ureztatze instalazioak berrikusiko dira konpromiso aldian (dagoeneko egin ez bada).
- C) Laguntza jaso dezaketen labore multzo guztietarako (5 multzoentzat), balantze hidriko bat eduki behar da, laguntzaaren xede diren labore unitate edo multzoen baldintzetara egokitua.
- D) Laguntza jaso dezaketen labore multzo guztietarako (5 multzoak) txandakatzeko konpromisoa bete behar da: Gutxienez 3 urtean ez da espezie bera jarriko lurzati berean. Laguntza eskaeraren xede diren labore guztiei aplikatuko zaie nahitaz, eta uneren batean laguntza eskaeraren xede diren lursail guztietan betetzen dela kontrolatuko da.

Hirugarren. Konpromiso espezifikoaren eta borondatezko konpromisoen aldaketak

- A) Labore txandaketa beste urtebetez luzatzeko borondatezko konpromisoak, 3 urtetik 4ra (lekaleen kasuan izan ezik), laguntza jaso dezaketen labore talde guztiei eragiten die (5 multzoek), baina urteko prima duten eta lekaleak ez diren laboreek bakarrik jasoko dute prima gehigarria (+150 €/ ha). Hau da, labore guztiek txandakatzeko bete behar dute, borondatezko konpromisoa ez baita labore multzoaren arabera egiten, eskaeraren arabera baizik, baina prima gehigarria patatak, erremolatxak eta baratze multzoak baino ez dute jasotzen.

Laugarren. Konprometitutako azalaren aldaketak:

- A) Konprometitutako azalera urtero mantendu behar dira. Konprometitutako azalera bat etorriko da konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindutako gehieneko azalarekin. 2026ko kanpainatik aurrera, konprometitutako azalari urtez urte eusteko, kontuan hartuko dira, halaber, lur ureztatuko ekilore eta arto laboreen NPBaren kontrolen ondoren eskatutako eta zehaztutako azalera.
- B) Urtero-urtero, hasiera batean konprometitutako azalera handitzeko aukera izango da. Urteko azalera gehikuntzak ordaintzea aurrekontu baliabideen mende egongo da. Gehikuntza hori diruz lagundua bada, nekazaritza eta ingurumen kontratu sinatuaren iraupen epea amaitu artean eutsi beharko zaio azalera konprometitu berriari.
- C) Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko azalera gehienez ehuneko 20 murriztu ahal izango da.



ERANSKINA - 2023-2025 ALDIAN KONPROMETITUTAKO 10 HA-KO AZALERA BATERAKO ADIBIDEAK

Jarraian, bost kasu praktiko azalduko ditugu, betekizunen eta konpromisoen aldaketek egoera desberdinetan nola eragingo luketen azaltzeko.

1. kasua: Konprometitutako azalera, 10 ha erremolatxan oinarrituta

2026ko eskaera:

0 ha labore lagungarri

2 ha lur ureztatuko ekilore/arto (edo diruz lagundu daitekeen edozein laboreren 2 ha)

- Gutxieneko azaleraren baldintza betetzen du
- Ez dio konprometitutako azalerari eusten % 60tik gorako murrizketa da, eta horrek 2026an laguntza ukatzea dakar
- Penalizazioa aplikatu ondoren, konprometitutako azalera birkalkulatzeko, 2 ha hartuko dira kontuan (laguntzarako eskatutako laboreena, primarik izan ez badute ere).
- Konprometitutako azalera ez mantentzeak ez du ekarriko jasotako zenbatekoak itzultzea.
- Beste ez-betetze ukatzailerik egon ez bada eta 2023-2026 aldian urtero laguntza eskatu badu, 2027ko kanpainan “gabealdiko urtea”ri heldu ahal izango dio.
- Laguntza 2027an eskatzen baduzu, **ordaintzeko konpromisoa konprometitutako 2 hektareetarako da.**

2. kasua: Konprometitutako azalera, 10 ha erremolatxan oinarrituta

2026ko eskaera:

8 ha lur ureztatuko ekilore/arto (2 ha-tik gorako azalera)

- Gutxieneko azaleraren baldintza betetzen du
- Urteko primari lotutako laborerik ez dagoenez, **ez du ordainketarik 2026an**
- Konprometitutako azaleraren % 20 murriztea. % 20ko murrizketa baimentzen denez, **konprometitutako azalera 10 hektareatan mantentzen da.** Laguntza 2027an eskatzen baduzu, **ordaintzeko konpromisoa konprometitutako 10 hektareei dagokie**



- Beste ez-betetze ukatzailerik egon ez bada eta 2023-2026 aldian urtero laguntza eskatu baduzu, 2027ko kanpainan “gabealdiko urtea”ri heldu ahal izango diozu.
- Lur ureztatutako ekilore/arto azalera txikiagoa eskatzen bada, ez da beteko konprometitutako azalerari eusteko konpromisoa, eta, horregatik, dagokion penalizazioa aplikatuko zaio. Konprometitutako azalera birkalkulatzeko, 2026an zehaztutako azalera hartuko da kontuan eta hori izango da ordaintzeko konpromisoaren azalera 2027rako konprometitutako azalerari ez eusteak ez du ekarriko jasotako zenbatekoak itzultzea.

3. kasua: Konprometitutako azalera, 15 ha erremolatxan eta 5 ha patatan oinarrituta

2026ko eskaera:

5 ha labore lagungarri - Lur ureztatuko patata

- Gutxieneko azaleraren baldintza betetzen du
- Ez dio konprometitutako azalerari eusten % 50eko edo hortik gorako murrizketa , **eta % 50eko penalizazioa dakar 2026ko 5 hektareei dagokien laguntzaren zenbatekoan.**
- Penalizazioa aplikatu ondoren, **konprometitutako azalera birkalkulatzeko, 5 ha hartuko dira kontuan.**
- 2027ko kanpainan, patataren 5 hektareak eska ditzakezu, eta guztiak ordainduko zaizkizu (betiere kontrolak betetzen badira).

4. kasua Konprometitutako azalera, 5 ha erremolatxan eta 5 ha patatan oinarrituta

2026ko eskaera:

5 ha labore lagungarri - Lur ureztatuko patata

3 ha lur ureztatuko ekilore/arto

- Gutxieneko azaleraren baldintza betetzen du
- Konprometitutako azaleraren % 20 murriztea. % 20ko murrizketa onartzen denez, ez da penalizaziorik aplikatzen eta laguntza jaso dezaketen laboreen 5 hektareak ordaintzen dira (lur ureztatuko patata).
- **Konprometitutako azalera 10 hektareatan mantentzen da.**



5. kasua: Konprometitutako azalera, 5 ha erremolatxan eta 5 ha patatan oinarrituta

2026ko eskaera:

5 ha labore lagungarri - Lur ureztatuko patata

2 ha lur ureztatuko ekilore/arto

- Gutxieneko azaleraren baldintza betetzen du
- Ez dio konprometitutako azalerari eusten % 30eko murrizketa da, eta **% 20ko penalizazioa dakar 2026ko 5 ha lagungarriei (patata) dagokien zenbatekoan.**
- **Konprometitutako azalera birkalkulatzeko, 7 ha hartuko dira kontuan** (laguntzarako eskatutako laboreena, primarik izan ez badute ere).

Edozein kontsulta egiteko, jar zaitez harremanetan zure ENBarekin edo Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuarekin, 945181818 telefonora deituta (52286 luzapena).